

LITERATURA. Epaimahaiak Beterri-Aiztondoko nahiz Euskal Herriko irakurleen proposamenak hartu ditu aintzat

Sarrionandiaren 'Lagun izoztua'-k jaso du Beterriko Liburua saria

Eleberriaren «ezohiko egitura» eta
«hizkuntza aberatsa» goraipatu dituzte

Ainhoa Oiarzabal | ANDOAIN

Beterriko Liburua 2001 aipamena jaso duen liburua legez, *Lagun izoztua* bezalakoa, hotza bezain beroa izan zen atzo Andoinen Larramendi Bazkunak antolatu zuen ohorezko literatur aipamenaren jendaurreko ekitaldia: hotza, aipamena jaso duen eleberriaren egilea Joseba Sarrionandia falta zelako; beroa, ordea, eleberriari eta idazleari buruzko hitz ederrak entzun zirelako. Hotz-bero horretan sortu zen une hunkigarri-rik, idazlearen arreba Mariaje Sarrionandiak larru bereziz ko- adernatutako *Lagun izoztua* eta izendapen ekitaldira hurbildu- tako lagun txaloak jaso zitue- nean biziena.

Idazlearen senitartekoekin batera liburua argitara eman zuen Elkar argitaletzeko orde- zari Xabier Mendiguren hurbil- du zen atzo Andoaingo kultur etxera. Pozik zegoen liburuak

«saria merezi duen sariketa» irabazi duelako —saria irakur- leek ematen dutelako esan zuen hori—. *Lagun izoztua* ira- kurleei bihotzeraino heldu zaiela adierazi zuen, eta liburu «hunkigarri, harrigarri eta di- bertigarria» irakurtzeko gonbi- ta egin zien oraindik irakurri ez dutenei.

«Lan eder zoragarria»

Irakurleek proposatu dute Sa- rrionandiaren eleberria Bete- rriko Liburua 2001 izatea. La- rramendi Bazkunako lehenda- kari Jon Unanuek bost irakurleen iritziak —epaima- hai orokorra osatzen duten bostenak— irakurri zituen atzokoan, «azaltzeko epaima- haiak zer izan duen oinarri bere merezimenduak erabakitze- ko garaian». Bikaina, polita, bere- zia, aberatsa, errealitatearekin lotua eta, besteak beste, gogo- eta harrigarri duna dela diote aipatu irakurleek. Halaber, Sa-



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Joseba Sarrionandiaren arreba Beterriko Liburua 2001 aipamena jasotzen.

rionandia euskal literaturaren «ortzean» argi handiko puntua dela zioen Unanuek irakurle- baten esana bere eginez, «eta ezaugarri nabarmena du idaz- ten duenari sortzen zaion ma- lenkolia ziskua. Irakurle hunki- gaitzena dardazterainoko tre- betasunez erakutsi digu er- besteratuen herrimina».

Iritzi horiei Beterri-Aiztondo- ko beste zenbait irakurleenak erantsi dizkiete, eta guztiak aint- zat hartuta erabaki du izenda- penaren epaimahai iraunkorrak *Lagun izoztua* saritzea. Jon Unanuek adierazi zuenez, on- doko merezimenduengatik: «Denboran eta espazioan zehar bidaia luze bat egiteko gonbi- ta egiten dio irakurleari. Elebe- rriak ez ohiko egitura du oina- rrian, eta atzera aurrerako jauzi ugariren laguntzaz elkarren ar- tean uztartutakohiru narrazio ezberdin azalaratzen ditu».

Gainera, hizkuntza aberatsa darabilela esan zuen: «Deskrip- zioetan iruditeria bikaina erabi- li du. Idazkeran naturaltasuna

JON UNANUE

Beterriko Larramendi Bazkuna kultur elkartearen lehendakaria

«Deskripzioetan iruditeria bikaina erabili du Sarrionandiak, eta idazkeran naturaltasuna da nagusi»

da nagusi, eta olerkari handia- ren estiloa agerian gelditzen da eleberri osoan zehar». «Lan eder zoragarria» dela esan eta bukatu zuen.

Seigarren ekitaldia


Gipuzkoako Beterri-Aiztondo eskualdean irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin sor- tu zuen 1996an Larramendi Bazkunak ohorezko literatur ai- pamen hau. Horretarako, ira- kurleek aukeratutako liburu bat saritzea otu zitzairen, beti ere urte baten buruan argitaratu den euskarazko poesia, saiake- ra, eleberri edo narratiba liburu

bat. Aipamena jasotzeak ez da- kar berarekin inolako sari eko- nomikorik; larru bereziz ko- adernatutako liburu saritua soilik irabazten du idazleak.

Liburua aukeratzeko, *Beterri- ko Liburua* literatur aldizkaria- ren bitartez bidaltzen dituzte eskualdeko irakurleek gehien gustatu zaien liburuaren propo- samena. Iritzi horiek sariketa- ren epaimahai iraunkorrak bil- tzen ditu, eta literatur aldizka- riaren harpidedun diren beste 60 lagunek osatzen duten epai- mahai orokorreko proposame- nekin alderatzen dituzte Bete- rriko Liburua aukeratzeko pro- zesuan.


Aurreko urteko ekitaldietan Joxean Agirreren *Elgeta*, Ur Apalategiren *Gauak eta hiriak*, Koldo Izagirreren *Nik ere Germin- al! egin gura nuen aldarri*, Lur- des Oñederraren *Eta sugeak emakumeari esan zion* eta Ra- mon Saizarbitoriaren *Gorde na- zazu lurpean* eleberriek jaso dute Beterriko Liburua literatur aipamena.

ANDOAIN IKUS-ENTZUNEZKOAK URIGAIN KULTURA ETXEAN



“Thuleko
azken ehiztariak”
JOSEBA EGIBAR
Maiatzaren 7an
19:30etan

“Libia
harrigarria”
IMANOL UGARTE
Maiatzaren 8an
19:30etan



Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. URIGAIN KULTURA ETXEA.
Laguntzailea: KUTXA.

elkar poesia | bilduma berria

Mugak geratzen zaizkit orain, hutsarteak, naturaren estasia, agian. Mugak geratzen zaizkit bakarrik, sakratutasun txikiago batez jantziak. Espazio minimoak. Leihoa. Muinoa. Bidegurutzea. Etxe ataria. Euriaren une desiratua. Erreka. Zeru. Zeru irudiz betea. Zeru ispiluz betea. Elementu soil horiekin hartzen dut amasa. Elementu soil horiekin eraiki dut esku artean duzun liburua.

